

LANGILEEN ORDEZKARITZA ENPRESAN

Aitor Bengoetxea

Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Irakaslea

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Koldo Irurzun

Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Irakaslea

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

AURKIBIDEA

1.- Enpresa eta Lan-Zuzenbidea.

2.- Langileen parte hartzea enpresaren kudeaketan.

3.- Langileen ordezkartza enpresan: ordezkartza bateratua eta ordezkartza sindikala.

4.- Ordezkartza bateratua: langileen delegatua eta enpresa-batzordea.

4.1. Organo bateratuak.

4.2. Hauteskundeak.

4.2.1. Hautesleak eta hautagaiak.

4.2.2. Hauteskundearen sustapena.

4.2.3. Hauteskunde-mahaiak.

4.2.4. Hauteskunde-sistema.

4.2.5. Bozketa eta bere emaitza.

4.2.6. Emaidza eta sindikatuen ordezkartasunaren

zehaztapena.

4.2.7. Erreklamazioak.

4.3. Funtzioak.

4.3.1. Sarrera.

4.3.2. Funtzioak.

4.3.2.1 Informazioa: informazio pasiborako eskubidea.

4.3.2.2 Kontsulta: informazio aktiborako eskubidea.

4.3.2.3 Legedia betetzearen kontrola.

4.3.2.4 Negoziazio kolektiboa.

4.3.2.5 Besterik.

4.4. Bermeak.

4.4.1 Babes neurriak.

4.4.2 Sustapen neurriak.

5.- Ordezkartza sindikala: atal sindikala eta delegatu sindikala.

5.1 Afiliatutako langileen eskubideak.

5.2 Atal sindikala.

5.3 Delegatu sindikala.

6.- Laneko arriskuak aurrebabesteko ordezkari berezia: prebentzioko delegatuak eta segurtasun eta osasuneko batzordea.

7.- Langileen ordezkari funtzio publikoan: langileen delegatuak eta langileen juntak.

8.- Biltzeko eskubidea enpresan: langileen asanblada.

LABURDURAK

ASLO 11/1985, Askatasun Sindikalari buruzko Lege Organikoa,

abuztuaren 2koa.

EB Europako Batasuna.

EBEP, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua, 7/2007 legea, apirilak 12koa

GJL 36/2011, Gizarte arloko Jurisdikzioaren Legea, urriaren 10ekoa.

LAAL 31/1995, Laneko Arriskuak Aurrebabesteko Legea, azaroaren

8koa.

LE 1/1995 Errege Dekretu Legegilea, Langileen Estatutua,

martxoaren 24koa.

## LANGILEEN ORDEZKARITZA ENPRESAN

### 1.- Enpresa eta Lan-Zuzenbidea

Enpresa berez fenomeno ekonomikoa da, ez baitu nortasun juridikorik. Enpresa merkatura ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituen entitatea da. Enpresaburua da nortasun juridikoa duena, lan-zuzenbideak Langileen Estatutuko (LE) 1. artikuluan dioen moduan, lan-kontratuko subjektu gisa, baina inon ez dugu aurkitzen enpresaren kontzeptu juridikoa. Hala ere, lan-zuzenbideak enpresaren eremua erreferentzi bezala erabiltzen du, bertan harreman juridiko laboralak garatzen direlako.

Ikuspegi juridiko batetik, enpresa elementu pertsonal eta elementu materialez osaturiko entitatea da. Enpresaburuari, bere zuzendaritza boterean oinarrituz, mota desberdineko elementu guztien (langileak, ekoizpen-ondasunak, dirua...) antolakuntza koordinatua dagokio, era horretan enpresak bere funtzio ekonomikoa bete dezan: merkatura zuzendutako ondasun edota zerbitzuen ekoizpena.

Enpresan diharduten enpresaburu eta langileen arteko harreman juridikoa lan-kontratuaren bitartez bideratzen da. Beraz, lan-zuzenbidearen ikuspegitik, enpresa lan-harremanak garatzen diren ohiko eremua da.

Enpresako langileak dimensio indibidual edo kolektiboan kontsidera daitezke. Teknikoki, enpresaburuaren lotura langileekin lan-kontratu indibidualek bideratzen dute. Baina zuzenbideak, enpresa bakoitzeko langile multzoak (pertsonala) enpresaburuaren aurrean dituen interes komunak kontuan hartuz, kolektiboa ordezkatzeko formulak sortu ditu, ondoren aztertuko ditugunak: ordezkaritza bateratua eta ordezkaritza sindikala.

### 2.- Langileen parte hartzea enpresaren kudeaketan

Doktrina klasikoari jarraituz, enpresaburua enpresaren kudeatzaile bakarra da. Ekoizpen baliabideen jabe izanik eta langileak bere menpe daudenez, lan-kontratutik eratortzen den zuzendaritza boterearen arabera, berari dagokio enpresaren jarduera zuzentzea. Langileek enpresarekin duten harreman guztia soldata baten truke lan- indarraren ekarpenara mugatzen da, beraz, langileen parte hartzea enpresaren zuzendaritzan bezero edo hornitzaileek dutenaren parekoa da: hutsaren hurrengoa.

Baina, ideologia politikoaren bilakaeraren ildotik, eskema liberal klasikoari aurre eginez demokrazia industrialaren leloa planteatzen da, hots, enpresako botere egitura demokratizatu beharra, langileen borondatea kontuan hartuz. Honela, langileen parte hartzea enpresan aldarrikatzen da.

"Langileen parte hartzea enpresan" esaten denean, fenomeno desberdinak uler daitezke: parte hartze mota desberdinak daude. Alde batetik parte hartzea kapitallean izan daiteke, zeinean langileak enpresako kapitalaren zati baten jabeak diren. Adibide nagusia Espainiar Zuzenbidean lan-sozietateak dira (4/1997 legea, martxoak 24koa). Parte hartzea baita ere mozkinetan izan daiteke; zenbait hitzarmen kolektibotan formula hau erregulatzen da, soldata osagarri gisa, enpresako jarduerak ematen dituen etekin ekonomikoen arabera. Baina guri atal honetan interesatzen zaiguna da parte hartzea enpresaren kudeaketan, zuzendaritzan, enpresako langileen ordezkarien funtzio bezala.

Kooperatibetan, bazkide langileei ez zaie lan-zuzenbidea aplikatzen, langile izateaz gain enpresaren jabeak direlako. Dena den, azpimarratu behar dugu kooperatibetan bazkide langileek hiru parte hartze motak gauzatzen dituztela: enpresako kapitalaren jabe dira; mozkinetan parte hartzen dute, erretornu kooperatiboaren bitartez; eta enpresaren kudeaketan parte hartzen dute, kontseilu errektorea hautatzen dutelako.

Zuzenbide konparatuari so eginez gero, eta batzutan sistema baten barruan gai desberdinen arabera, enpresako kudeaketan parte hartze eredu desberdinak aurkitzen ditugu. Autogestioan, langileek kudeatzen dutenean enpresa, parte hartzearen gehieneko intentsitatea gertatzen da. Beste maila batean kogestioaren sistema genuke, kasu honetan enpresako administrazio kontseiluan, kapitalaren ordezkarietz gain, langileen ordezkariak daude. Beraz, kudeaketa guztien artean egiten dute, eta sistema hau batez ere Alemanian erabiltzen da. Beste eredu bat, Espainian indarrean dagoena, kudeaketa enpresaburuaren eskuetan egonik, parte hartzea informazio eta kontsultara mugatzean datza. Kasu honetan enpresako langile guztien ordezkari den organo baten bitartez (langileen delegatua eta enpresa-batzordea) gauzatzen da nolabaiteko parte hartze hori.

Espainiar Zuzenbidean, Konstituzioak dio botere publikoek parte hartze mota desberdinak sustatuko dituztela (Konst.129.2 art.). Agindu honen legezko garapena Langileen Estatutuan egin da; alde batetik, "parte hartzea enpresan" langileen oinarrizko eskubide gisa aldarrikatzen da (LE-ko 4.1. g) art.), eta, bestalde, parte hartzeko tresna bezala ordezkari bateratuko organoak erregulatzen dira (langileen delegatuak eta enpresa-batzordea), parte hartzeko beste moten kalterik gabe (LE-ko 61. art.).

Langileen Estatutuak erregulatzen duen sistema kritikagarria da, oso eskasa izateagatik, langileen delegatu eta enpresa-batzordearen funtzioak aztertuz gero, funtsean zenbait gaitan informazio eta kontsultarako eskubidera mugatzen direla ondorioztatzen delako. Nekez kontsidera daiteke eskuduntza horien bitartez enpresaren kudeaketan parte hartzea gauzatu daitekeenik, eta horregatik Konstituzioko 129.2 artikuluan jasotzen den agindua garatzear dagoela kontsidera genezake.

Europako Batasunaren (EB) eremuan, 1994/45 Direktibak, irailak 22koa, dimentsio komunitarioa duten enpresa eta enpresa-taldeetan langileen parte hartzea kudeaketan erregulatzen du. Direktiba hau, Espainiar Estatuan, 10/1997 Legeak garatu du, apirilak 24koa (Europar dimentsioko enpresa eta enpresa-taldeetako langileen informazio eta kontsultarako eskubideei buruzko Legea).

Dimentsio komunitarioko enpresak dira EBko Estatuetan, oro har, 1000 langile edo gehiago dituztenak, gainera gutxienez bi Estatu kidetan 150 edo langile gehiago izanik. Dimentsio komunitarioko enpresa taldeak dira, legearen arabera, EBko Estatuetan, oro har, 1000 langile edo gehiago dituztenak, eta, gutxienez, taldeko bi enpresak 150 edo langile gehiago dituztenean EBko Estatu desberdinetan.

Enpresa hauetan Europako enpresa-batzordeak egotea aurreikusten da. Batzorde honetan Estatu desberdinetako langileen ordezkariak daude. Batzorde hauek sortzen ez dituzten enpresetan, beste prozedura alternatiboen bitartez langileen informazio eta kontsultarako eskubideak bermatu behar dira.

### 3- Langileen ordezkariak enpresan: ordezkariak bateratua eta ordezkariak sindikala

Enpresa barruan, langileen eta enpresaburuaren arteko interes kontrajarriak direla eta, enpresako langileen ordezkariak kolektiboko organoak daude. Organo hauen zeregina langileen interes komunak defendatzea da, enpresaburuaren solaskide gisa arituz.

Langileen interesak defendatzeko bi ordezkariak-mota daude: bateratua eta sindikala. Lehenengo kasuan, ordezkariak enpresako langile guztien artean hautatzen dira, eta, bide batez, organo bateratu horietan langile guztien ordezkariak gauzatzen da, kolektibo osoaren interesak defendatuz. Beraz, organo hauetako hautesle, hautagai eta kide izateko galdatzen den betekizun bakarra enpresa horretako langilea izatea da (ik. 4.2.1.).

Aldiz, ordezkariak-sindikalaren ezaugarri eta zeregin nagusia hauxe da: enpresan sindikatu batera afiliatuak dauden langileen interesak defendatzea, langile guztien interes orokorrak ahaztu gabe. Ordezkariak mota hau sindikatu bakoitzaren barne-egituraketaren eremuan kokatzen da, eta enpresa barruko organo sindikal hauetako hautesle eta kideek dagokien sindikatura afiliatuta egon behar dute.



Historikoki lehendabiziko ordezkari mota, era espontaneo batean sortutakoa, bateratua izan zen. Langileen kolektiboaren interesak ordezkatzuz, enpresaburuaren aurrean solaskide gisa aritzeko langileen ordezkariak sortu ziren.

Sindikatuaren ohiko jarduera-eremua enpresa baino zabalagoa izan da, nahiz eta beti honela ez izan. Kontuan hartu behar dugu sindikatuen eginkizun tipikoa langileen interes orokorrak defendatzea izan dela, langileri osoa gizarte-klasetzat hartuz. Historian zehar sindikatuek asko erabili izan dute ofizioaren eremua, eremu handiagoekin batera. Arrazoi honengatik ulergarria da sindikatua ez egituratzea enpresa bakoitzeko langile konkretuen interesak defendatzeko moduan, bere helburuak askoz zabalagoak direlako. Gainera korrante sindikal batzuk organo bateratuei enpresaburuaren laguntzaile moduan jokatzea leporatu izan diete, honela sistema kapitalista legitimatu eta indartuz.

Baina, bigarren fase batean, denbora eta esperientziaren poderioz, sindikatuek egokia eta beharrezkoa ikusten dute enpresa bakoitzean jardutea, enpresa barruko organo sindikalak sortuz. 1960ko hamarkadako bukaera aldean, Frantziako 68ko maiatza ostean, gertatzen da fenomeno hau zuzenbide konparatuan, eta honela enpresa barruko ekintza sindikal antolatua hasten da, atal sindikalak legeztatzen direnean.

Bi ordezkari mota desberdinen aurrean enpresaburuaren jarrera ez da neutrala izan; normalean enpresaburuak ordezkari bateratuak nahiago izan dituzte. Honen arrazoiak azken hauek ordezkari sindikalek baino jarrera lagungarriago eta apalagoa erakutsi dutela oro har.

Gaur egun zuzenbide konparatuan ohikoena da bi sistemak aldi berean indarrean egotea, enpresetan bi motetako ordezkariak daudelarik. Hala ere nabaritzen den joera ordezkari sindikalen aldekoa da. Kasu batzuetan hauxe da enpresa barruko ordezkari mota bakarra (adib. Erresuma Batua eta Irlanda), beste batzuetan (adib. Espainia), bi ordezkari motak indarrean egonik, ordezkari bateratuaren sindikalizazioa iger daiteke, gehienetan ordezkari bateratuak sindikatuek aurkeztutako hautagai-zerrendetan aukeratuak baitira.

LANEK (Lanaren Nazioarteko Erakundea) (OIT) gai hau batez ere 135. Hitzarmenean tratatzen du. Arau honetan hiru ezaugarri azpimarratu behar ditugu: bi ordezkari motak onartzen dira, ordezkari sindikala sustatzen da, bestearekiko lehentasuna emanez nolabait, eta azkenik bi motako ordezkarien arteko elkarlaguntza bultzatzen da (5. art.).

Espainiako ereduari dagokionez, ordezkari bikoitzaren sistema da indarrean dagoena. Konstituzioa aztertuz gero, bertan ordezkari sindikala babesten duten artikulak aurki ditzakegu (Konst. 7 eta 28.1, batez ere). Aldiz, ordezkari bateratuaren euskarri konstituzional bakarra, ez zuzena baizik eta zeharkakoa, 129.2 artikulak aipatzen duen "parte hartzea" da, organo bateratuek parte hartze hori gauzatzen duten heinean. Lege mailan, LE-ko II. Tituluan ordezkari bateratua isladatzen duten organoak erregulatzen dira: langileen delegatuak eta enpresa-batzordeak. Ordezkari sindikala

ahalbideratzen duten organoak atal sindikalak eta delegatu sindikalak dira, ASLO-ko IV. Tituluan aurki daitezkeenak. Aurrerantzean aztertuko ditugu.

## 4.- Ordezkaritza bateratua: langileen delegatua eta enpresa-batzordea

### 4.1.- Organo bateratuak

Langileen ordezkariak kolektiboa enpresan bi organoren bitartez gauzatzen da, bata indibiduala, langileen delegatua, eta bestea kolegiatua, enpresa-batzordea. Organo hauek enpresako langile guztiak ordezkatzeko dituzte, beraien interesak defendatuz. Bere erregulazioa LE-ko 61-76 arteko artikuluetan aurki dezakegu. "Langileen legezko ordezkariak" dira, eta, legeak kakoen arteko espresioa erabiltzen duenean, bi organo hauei buruz ari dela ulertu behar da beti. Langileen delegatuak eta enpresa batzordeetako kideak langile guztien artean hautatzen dituzte, eta derrigorrez enpresako langileak izan behar dute (LE-ko 67.2 art.).

Azpimarratu behar da bi organoek funtzio eta berme berberak dituztela; beraz bien arteko desberdintasuna ez da kualitatiboa, kuantitatiboa baizik. Enpresa-batzordeak aurkituko ditugu lantoki batean 50 edo langile gehiago daudenean, eta langile-kopurua txikiagoa denean langileen delegatuak egongo dira, gutxienez 6 langile baldin badaude, aurrerago ikusiko den bezala. Beraz erreferentzi puntu nagusia lantokia da; bertan dagoen langile-kopurua, eta ez enpresa.

Langile-kopurua zehazteko orduan kontuan hartuko dira, langile finkoen gain, aldi baterako langileak. Hala ere, azken langile hauen kontratua urtebetekoa edo iraupen gutxiagokoa denean, legeak erregela berezi bat aurreikusten du: hauteskundearen aurreko urtebeteko epean, aldi baterako kontratu hauen bitartez lan egindako berrehun egun edo zatiki bakoitzagatik langile bat zenbatuko da (LE-ko 72.2.b).

Langileen delegatuak ordezkariak kolektiboko organo indibidualak dira 50 baino gutxiago eta 10 baino langile gehiago dituzten lantokietan. Langile-kopurua gehienez 30ekoa denean delegatu bat egongo da, 31 eta 49ren arteko langile dauden kasuetan langileen hiru delegatu izango direlarik. Azkenik, lantokiko langile-kopurua 6 eta 10 artekoa denean langileen delegatu bat egon daiteke; erabakia langileen esku uzten du legeak (LE-ko 62.1 art.).

Delegatu bat baino gehiago daudenean, batera jardungo dute. Erabakiak hartzeko orduan desadostasunak baldin badaude, gehiengoaren iritzia nagusituko da (LE-ko 62.2 art.).

Enpresa-batzordea organo kolegiatua da. Bere kideen kopurua gutxienez 5ekoa eta gehienez 75ekoa izango da. Elementu hau zehazteko legeak eskala bat ezartzen du, kideen zenbatekoa langileen kopuruaren arabera ezartzen delarik (LE-ko 66.1 art.).

Enpresa-batzordearen barne-funtzionamenduari dagokionez, derrigorrezkoa da kideen artean mahaiburua eta idazkaria aukeratzea. Era berean, prozedurako erregelamendu propioa egin behar dute barne-jarduera erregulatzeko. Batzordea bi hilabetero bildu behar da, edo kideen herenak ala ordezkaturiko langileen herenak honela eskatzen duen bakoitzean (LE-ko 66.2 art.).

Enpresa-batzordeak hiru motakoak izan daitezke: enpresa-batzorde arrunta, enpresa-batzorde bateratua eta lantokiarteko batzordea.

Enpresa-batzorde arrunta osatuko da 50 edo langile gehiago dituzten lantokietan (LE-ko 63.1 art.). Enpresa-batzorde bateratua eratuko da enpresa batek bi edo lantoki gehiago dituenean probintzia berean edo udalerrri mugakideetan, lantoki horiek bakarka kontsideratuta ez direnean 50 langileko kopurura heltzen, baina bai lantoki desberdinetako langileak batuz gero. Kasu hauetan lantoki guztietarako enpresa-batzorde bateratua eratuko da (LE-ko 63.2 art.).

Lantokiarteko batzordea hitzarmen kolektibo baten bitartez bakarrik sor daiteke. Gehienez 13 kide edukiko ditu, lantokietako batzordeetako kideen artean hautatuak, eta bere osieran sindikatuen proportzionaltasuna kontuan hartu behar da, hauteskundeetako emaitzen arabera. Lantokiarteko batzordearen funtzioak berau sorrarazten duen hitzarmen kolektiboak ezartzen dituenak izango dira (LE-ko 63.3 art.).

Ondoren langileen delegatuak eta enpresa batzordeetako kideak komunean dituzten zenbait ezaugarri ikusiko ditugu: agintaldiaren iraupena, errelokazioa eta ordezkapena.

Ordezkarri bateratuen agintaldiaren iraupena 4 urtekoa izango da, eta, epe hori amaitzean hauteskunde berriak ez badira sustatzen, agintaldia luzatu egingo da. Ordezkarri berak berrautatuak izan daitezke, mugarik gabe.

Errelokazioari dagokionez, ordezkariak hautatu dituzten langileen herenak honela eskatutako asanbladaren bitartez gerta daiteke, bilera horretan langileen gehiengo absolutoa errelokazioaren alde azaltzen baldin bada. Hala ere, errelokazioa ezingo da gertatu hitzarmen kolektibo bat izapidatzen ari den bitartean, eta ezin da birplanteatu ordezkari beraren errelokazioa azken proposamenetik gutxienez 6 hilabete igaro arte.

Edozein arrazoigatik ordezkari bateratu baten lekua bete gabe gelditzen bada, legeak honako erregelak aurreikusten ditu: postua bete gabe uzten duena langileen delegatu bat baldin bada, hauteskundeetan botutan hurren geratu den hautagaia izango da ordezkaria. Enpresa-batzorde bateko kide

bat denean ordeztu beharrekoa, ordezkoa hautagai-zerrenda bereko hurrengo langilea izango da. Bi kasuetan ordezkapenak agintaldia bukatu arte iraungo du.

## 4.2.- Hauteskundeak

Ordezkarri bateratuak aukeratzeko prozesuak "hauteskunde sindikalak" izena jasotzen du hizkuntza arruntean, batez ere hedabideetan. Ikuspegi tekniko-juridiko batetik ezin da, inolaz ere, izen hori onartu. Azken finean ordezkari bateratuak hautatzen dira, ez sindikalak. Gertatzen dena da elkarren arteko erlazioa nabaria dela, gehienetan ordezkari bateratuak sindikatuetatara afiliaturiko langileak baitira, sindikatuak aurkeztutako zerrendetan azaltzen direnak. Gainera, sindikatuak hauteskundeak sustatzeko legitimaturik daude.

Hauteskundeak erregulatzen dituzten iturriak LE-ko 67 eta 69-76 arteko artikuluetan eta 1844/1994 irailak 9ko Errege Dekretuan aurkitzen ditugu.

Hauteskunde hauen ezaugarri nagusia bere balio bikoitza da. Lehenik eta behin, ordezkari bateratuak aukeratzeko balio dute eta, honen ondorioz, bigarren funtzio bat betetzen dute: sindikatu desberdinen ordezkarietasunaren neurketa, sindikatuak aurkeztutako zerrendek jasotzen dituzten emaitzen arabera. Horregatik, ordezkarietasun nagusiko sindikatuak eta nahiko ordezkarietasuneko sindikatuak zeintzuk diren erabakitzeke orduan, neurketa-irizpidea organo bateratuak aukeratzeko hauteskundeak dira.

### 4.2.1.- Hautesleak eta hautagaiak

Hautesle izateko betekizunak hauek dira: 16 urte baino gehiago edukitzea eta, gutxienez, hilabete bateko antzintasuna enpresa edo lantokian.

Hautagai izateko, 18 urte beteak eta enpresan gutxienez sei hilabetetako antzintasuna edukitzea galdatzen du legeak. Hala ere, zenbait sektoretan, langileen mugikortasunaren arrazoiak direla eta, hitzarmen kolektiboaren bitartez antzintasunaren galdapena murriztea aurreikusten da, gehienez hiru hilabetetara.

Aurreko betekizunak betez gero, langile atzerritarrak eta aldi baterako langileak hautesle edota hautagai izan daitezke, langile finkoen baldintza beretan.

Hautagai-zerrendak aurkezteko legitimazioa bikoitza da, hots, zerrenda sindikalak eta ez-sindikalak onartzen dira. Lehenengo motari dagokionez, legalki eratutako sindikatu oro aurkez daiteke, eta baita ere sindikatuen arteko koalizioak. Langile-talde independente batek hautagai-zerrenda bat aurkeztu nahi duenean, honako betekizuna galdatzen zaio: gutxienez, bete beharreko postuen hirukoitza suposatzen duen sinadura-kopuruaren babesa edukitzea, bere lantoki eta hauteskunde-kolegio bereko langileen artean lortutakoa (LE-ko 69.3 art.). Bestalde, kontuan eduki behar da hautagaiak aurkezteko eskubidea askatasun sindikalaren funtsezko edukiaren eremuan kokatzen dela (ASLO-ko 2.2. d) art.).

#### 4.2.2.- Hauteskundearen sustapena

Hauteskunde-sustapena hiru kasutan gerta daiteke: lantoki edo enpresa berri bat sortzen bada, enpresa bateko langile kopurua handituz gero, edo ordezkarien agintaldia amaitzen denean.

Hauteskundearen sustapenaren bitartez hauteskunde-prozesuari hasiera ematen zaio. Sustapenarako legitimaturik dauden subjektuak hauek dira: ordezkartasun nagusiko sindikatuak, enpresan gutxienez ordezkari bateratuen %10-a duten sindikatuak, eta lantokiko langileak, gehiengoak honela erabakitzen badu (LE-ko 67.1 art.).

Sustatzaileek, aurreabisuaren bitartez, hauteskundeak egitearen erabakiaren berri eman behar dute. Aurreabisoak bi norabide jarraitu behar ditu: alde batetik erabakia enpresaren ordezkartzari (zuzendaritza) jakinarazi behar zaio eta, bestetik, Lan-Administrazioari; dagokion Administrazio zentral edo autonomikoko organoari. Aurreabisoa, gutxienez hauteskunde-prozesua hasi baino hilabete lehenago egin behar da.

Printzipioz, hauteskundeak lantoki edo enpresa bakoitzean egingo dira, era autonomo batean, baino legeak eremu lurraldetar eta funtzional batean edo zenbait eremutan hauteskunde orokorrak egiteko aukera aurreikusten du, ordezkartasun nagusiko sindikatu edota nahiko ordezkartasuneko sindikatuen artean aldez aurretik adostuz gero.

#### 4.2.3.- Hauteskunde-mahaiak

Legeak agintzen duenaren arabera, enpresa edo lantokian, mahai bat eratuko da 250 langile edo zatikia duen hauteskunde-kolegio bakoitzeko (LE-ko 73.1 art.). Langileen delegatuak hautatu behar direnean kolegio bakar bat dago, bertan langile guztiak aurkitzen direlarik. Aldiz, hauteskundeak enpresa-batzordea aukeratzeko egiten direnean, bi kolegio osatuko dira, talde profesionalen arabera: bata tekniko eta administratiboentzat eta bestea espezialista eta kualifikatugabeentzat. Enpresa konkretuen osaketa profesional berezia dela eta, legeak hirugarren kolegio bat sortzea aurreikusten du, hitzarmen kolektiboaren bitartez. Ikus daitekeenez langileak, bere talde profesionalen arabera, kolegio desberdinetan banatzen dira. Honen arrazoia ximplea da: enpresa-batzordearen baitan talde profesional desberdinak era egokian ordezkatuak egotea, guztien interesak defendatuak egon daitezen. Horregatik legeak espreski adierazten du batzordearen osaketan talde profesionalen proportzionaltasuna gordeko dela (LE-ko 71.1 art.).

Mahaiaren osaketari dagokionez, arau zehatzak daude. Mahaiburua enpresan antzinasun handiena duen langilea izango da, eta mahaikideak hautesle zahar eta gazteena diren bi langileak. Azken honek idazkari-funtzioak beteko ditu, era berean. Guztiok ordezkoak edukiko dituzte, aipatutako antzinasun eta adinaren irizpideen arabera (LE-ko 73.3 art.). Debekatua dago mahaikideak, aldi berean, hautagai izatea (LE-ko 73.4 art.). Bestalde, hautagai edo hautagai-zerrenda bakoitzak ikustaileak bidal ditzake hauteskunde-mahaietara eta enpresaburuak, modu berean, bere ordezkari bat izenda dezake bozketan eta ondorengo zenbaketan egoteko (LE-ko 73.5 art.).

Oro har, hauteskunde-mahaiaren funtzioa hauteskunde-prozesu osoa bideratzea dela esan genezake. Besteak beste, langileen errolda publikatu, aukeratu beharreko ordezkarien kopurua zehaztu, erreklamazioak ebatzi, botoen zenbaketa egin eta emaitzen akta jaso. (LE-ko 73.2, 74. 2 eta 3 art.).

#### 4.2.4.- Hauteskunde-sistema

Legean hauteskunde-sistema desberdinak aurreikusten dira hautatu beharrekoak langileen delegatuak (LE-ko 70. art.) edo, aldiz, enpresa-batzordeko kideak direnerako (LE-ko 71. art.).

Langileen delegatuak hautatu behar direnean, gehiengoaren sistema erabiltzen da. Zerrenda ireki bakar batean aurkezten dira hautagai guztiak; independenteak nahiz sindikatu baten izenean azaltzen direnak. Hautesle bakoitzak aukera ditzake, gehienez, hauteskunde horretan atera daitezkeen adina hautagai, hots, bat edo hiru, enpresa edo lantoki konkretuko langile-kopuruaren arabera.

Aukeratu beharrekoak enpresa-batzordeko kideak direnean sistema proportzionala erabiltzen da. Kandidatura bakoitzak hautagai-zerrenda bat aurkezten du, eta hautesleek kandidatura bakar bati eman diezaioke botoa, beraz zerrenda itxien sistema aplikatzen da.

## 4.2.5.- Bozketa eta bere emaitza

Bozketan eta, oro har, hauteskunde-prozesu osoan, enpresaburuak beharrezko baliabideak jarri behar ditu (LE-ko 75. art.).

Bozketa lantokian egin behar da, eta lanorduetan. Hala ere, legean postaz bozkatzeko aukera aurreikusten da.

Botua librea, sekretua, pertsonala eta zuzena izango da. Txartelak itxiak dauden hauteskontzietan sartuko dira, hauteskunde politikoetan egiten den moduan.

Bozketaren ondoren botoen zenbaketa egiten da. Emaitzen akta jasoko da, bertan mahaikide guztiek eta, baldin badaude, ikuskatzaileek eta enpresaburuaren ordezkariak sinatuko dutelarik. Lan-Administrazioko organoak emaitzen akta erregistratuko du, ala akta erregistratzeari uko egingo dio, legezko betekizunak betetzearen arabera: hauteskunde-sustapena jakinaraztea, akta irakurtzeko modukoa izatea, etab. (LE-ko 75.7 art.). Erregistratzearen ukapena gizarte-arloko jurisdikzioaren aurrean aurka daiteke (GJLko 133 art. eta hurr.).

Aukeratu beharrekoak langileen delegatuak edo enpresa-batzordeko kideak izatearen arabera, hauteskunde-sistema desberdina denez gero, hautatuak zeintzuk diren zehazteko orduan sistema desberdina da baita ere.

Langileen delegatuen kasuan, hautatuak suertatuko dira boto gehien jasotzen dituzten hautagaiak. Berdinketa balego, hautatua antzintasun handiagoko langilea izango litzateke (LE-ko 70. art.).

Hauteskundera enpresa-batzordeko kideak aukeratzeko egiten denean, zerrenda bakoitzak dagozkion eserlekuak lortuko ditu, honako eragiketaren arabera: zerrenda horrek lortutako boto baliiodunen kopurua bete beharreko postu-kopuruaz zatitu ondoren, lortzen den zatikia. Hala ere bete gabeko postuak gelditzen badira soberan, boto-hondar handiena duten kandidatei esleituko zaizkie. Honetaz gain, kandidatura batek enpresa-batzordeko kide bat lortu ahal izateko, gutxienez dagozkion kolegioko botoen %5a lortu behar du (LE-ko 71. art.).

## 4.2.6.- Emaitza eta sindikatuen ordezkariatasunaren zehaztapena

Gorago aipatu den bezala, hauteskundeetako emaitzen arabera, hots, ordezkari bateratuen afiliazio sindikalaren arabera, sindikatuen ordezkartasuna zehaztuko da. Honela "ordezkartasun nagusiko sindikatuak" zeintzuk diren erabakitzen da, kalifikazio honetatik erartortzen diren ondorio guztietarako.

Aktak jasotzen dituzten Lan-Administrazioko bulego publikoek emaitza guztien datuak etengabe eguneratu beharko dituzte, beraien artean koordinatuz. Era honetan, bulego hauek uneoro sindikatu desberdinen ordezkartasun maila adierazteko moduan egon beharko dute. Sindikatuek, momentu bakoitzean bere ordezkartasuna frogatu ahal izateko, gaitasun ordezkartzailea erakusten duten ziurtagiriak eskatuko dituzte aipatutako organo publikoetan (LE-ko 75.7. eta ASLO-ko 1go xed. gehi.).

#### 4.2.7.- Erreklamazioak

Hauteskunderi buruzko erreklamazioei erantzuteko, arbitraiako prozedura ezartzen da legean, baina, aktaren erregistroaren ukapenean, aurkapena zuzenean gizarte-arloko jurisdikzioaren aurrean egin daiteke (LE-ko 76. art.).

Hauteskunde mahaiaren ebazpenak eta jardura aurka daitezke, oro har, akatsak dituztela uste denean. Legitimaziodun arazoan interes legitimoa duen edonor izango da, enpresaburua barne.

Arbitroak neutraltasun eta profesionaltasuneko printzipioen arabera aukeratuko dira, Zuzenbidean lizentziatu, Gizarte graduatu edo titulu baliokidea dutenen artean. Arbitroak izendatzeko, sindikatu nagusien arteko ahobateko akordioa eskatzen da; Estatu eta Komunitate Autonomoko mailakoak eta gatazkaren eremuan gutxienez ordezkari bateratuen %10a dutenak. Honen ezean, autoritate laboralak erabakiko du izendatze-sistema, aipatutako printzipioen arabera. Hala ere, zuzenean gatazkako subjektu diren agenteek arbitro desberdin bat izendatzea erabaki dezakete.

Legean abstentzio eta errekusazio kausak aurreikusten dira, besteak beste, arazoan interes pertsonala edukitzea, interesatuen senide izatea, beraiekiko adiskidetasun handia edo areriotasun nabaria edukitzea.

Arbitraiako prozedura Lan-Administrazioko bulego publikoari, hauteskunderen sustatzaileei eta hautagaiei idazki bana bidaliz hasten da. Arbitroak, alderdi interesatuei entzun eta egokitatzat jotzen dituen froga eta eginbideen ondoren, laudoa emango du. Laudoak, planteatutako arazoa Zuzenbidearen arabera ebatzi behar du.



Laudoa aurka daiteke gizarte-arloko jurisdikzioaren aurrean, Gizarte arloko Jurisdikzioaren Legean aurreikusten den prozedura bereziaren bitartez (GJL-ko 127. art. eta hurr.)

## 4.3.- Funtzioak

### 4.3.1.- Sarrera

Langileen delegatuek eta enpresa-batzordeek funtzio berberak dituzte egungo legediaren arabera (LE-ko 62.2 art.).

Funtzioak zeintzuk diren finkatzeko, hiru iturri nagusi aztertu behar dira: oro har, bi organoak "langileen legezko ordezkariak" direnez gero, lege desberdinetan formula hori erabiliz eskuduntzak esleitzen direnean, aipatutako organo bateratuei dagozkiela ulertu behar da, eta ez organo sindikalei. Bestalde, eskuduntza gehienak LE-ko 64. artikuluan aurkitzen dira. Honetaz gain hitzarmen kolektiboek funtzio gehiago esleitzen ohi dizkiete organo bateratuei.

Funtzioen izaerari dagokionez, esan daiteke, oro har, langileen ordezkariak ez dutela parte hartzen enpresaren kudeaketan. Arlo honetako legeriak argi uzten du nork zuzentzen eta kudeatzen duen enpresa: enpresaburuak. Azken finean, organo bateratuen eskuduntzak, lau atal nagusi hauek mugatzen dira batez ere (LE-ko 64. art.): informazio aktiboa (kontsultatua izateko eskubidea), informazio pasiboa (informatua izateko eskubidea), lan-legediaren betetze zuzenaren kontrola, eta negoziazio kolektiboa (enpresa edo enpresa azpiko eremuan). Azken funtzio hau ez da ohikoa zuzenbide konparatuan.

### 4.3.2.- Funtzioak

Langileen delegatuen eta enpresa-batzordeen funtzio nagusiak honela sailka daitezke (batez ere, LE-ko 64. art.):

## 4.3.2.1.- Informazioa: informazio pasiborako eskubidea

Organo bateratuek eskubidea dute enpresaburuarengandik informazioa jasotzeko zenbait gairi buruz:

- Gutxienez hiruhilabetero informazioa jaso enpresaren egoerari buruz: ekoizpena eta ekoizpen-programa, salmentak, enpleguaren bilakaera enpresan, enpresaren sektore ekonomikoko bilakaera orokorra eta kontratu berriak egiteko aurreikuspenak.
- Enpresaren urteroko kontuak ezagutzeko eskubidea: balantzea, emaitzen kontua eta memoria.
- Falta oso larriengatik ezarritako zehapen guztien informazioa jasotzea. Informazioa zehapena ezarri ondoren eman daiteke; legeak ez du galdatzen aldeztatik izatea.
- Gutxienez hiruhilabetero absentismoko, lan-osasuneko, eta istripuetako datuak jasotzea.
- Idatziz egin behar diren lan-kontratu guztien "oinarrizko kopia" jasotzeko eskubidea. Baita ere enpresaburuak jakinarazi behar ditu kontratu hauen balizko luzapen eta iraungipenak.
- Langileen funtzio aldaketa, funtzio berriak ez direnean langilearen talde profesionalekoak (LE-ko 39.2 art.).
- Langileen leku aldaketak (LE-ko 40.1 art.).

Enpresaburuak informazio pasiborako hauetako edozein eskubide urratzen badu, urrapen larria kontsideratu behar da LE-ko 95.7 artikulua araberan.

## 4.3.2.2.- Kontsulta: informazio aktiborako eskubidea

Enpresaburuari iritzia jakinarazteko eta langile ordezkariari informatzeko eskubidea da.

Zenbait gairi buruz legeak enpresaburuari, erabakiak hartu baino lehen, langileen ordezkariari iritzia ezagutzera behartzen du, txosten baten bitartez, besteak beste kasu hauetan:

- Lanaren antolakuntza enpresan: plantillaren berregituraketa, langileen kaleratzea, lanaldi-murrizketak, lanbide heziketako planak, sailkapen profesionaleko arazoak, etab.
- Enpresaren "status" juridikoaren aldaketa: fusioa, absortzioa edo nolabaiteko "status" aldaketak enpresako enplegu mailan eragiten duenean.

Kontsulta derrigorrezkoa baina ez-loteslea da, eta enpresaburuak erabakirik hartuko balu kontsultatu gabe, legezko obligazioa edukirik, erabakia baliogabetu daiteke eta gainera urrapen administratibo larria da (LE-ko 95.7 art.).

Bestalde, enpresa-batzordeetako kide eta langileen delegatuek, ordezkatzan dituzten langileei informatu beharko diete lan- harremanengan eragina duten arazo guztiei buruz. Hala ere, ezagutzen duten zenbait gairi buruz legeak ixiltasun profesionaleko obligazioa ezartzen du, hots, informazioa ez zabaltzea, batez ere enpresako zuzendaritzak gaiak izaera erreserbatua duela adierazten duenean (LE-ko 65.2 art.).

#### 4.3.2.3.- Legedia betetzearen kontrola

Enpresan aplikagarri den lan eta gizarte segurantzako araudia betetzearen kontrola. Urrapenak salatzearen, enpresa-batzordeko kide eta langileen delegatuek, organo gisa, gaitasuna dute beharrezko diren jardura administratibo edo judizialak aurrera eramateko (LE-ko 65.1 art.).

Segurtasun eta higieneko arloan, legezko neurriak ez direnean betetzen, prebentzioko delegatuek ez badute egiten (ik. 6), ordezkari bateratuek eskubidea dute enpresaburuari zuzenean neurri egokiak har ditzan erreklamatzeko eta, kasu larrietan, lan-jardura gelditzea agintzeko (LE-ko 19. 5 art.).

#### 4.3.2.4.- Negoziazio kolektiboa

Enpresako ordezkari bateratuek, enpresa edo azpiko eremua duten hitzarmen kolektiboak negoziatzeko eskubidea dute (LE-ko 87.1 art.). Hitzarmen hauek eraginkortasun pertsonal orokorra izango dute, enpresa edo azpiko eremuko langile guztiei aplikatuko baitzaizkie.

Era berean, organo hauek enpresako akordioak negoziatzen dituzte, normalean hitzarmen kolektibo ezean eta beti ere bere menpe funtzionatzen duten tresna juridikoak. Gai ugarietan aurreikusten ditu legeak enpresako akordioak: sailkapen profesionaleko sistema, leku aldaketa kolektiboa, lan-baldintzen mamizko aldaketa, kaleratze kolektiboak, etab.

#### 4.3.2.5.- Besterik

Lan-araudiak beste zenbait funtzio heterogeneo uzten ditu ordezkari bateratuen eskuetan: obra sozialen kudeaketan parte hartzea (LE-ko 64.1.10 art.), enpresako zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea produktibitatea hobegotzeko, hitzarmen kolektiboetan erabakitakoaren arabera (LE-ko 64.1.11 art.), greba deialdia egitea, gatazka kolektiboko prozedura hastea, etab.

#### 4.4.- Bermeak

Lan-zuzenbideak, ordezkariak bere zeregina bete ahal izatea bermatu nahi du. Horretarako, bi motako neurriak bereizi ditzakegu. Alde batetik, langileen ordezkariak enpresaburuaren zuzendaritza boterearekiko babes berezia jasotzen du, eta, bestalde, ordezkariak funtzioa posible egiteko sustapen neurriak aurreikusten dira. Hona hemen legezko gutxienezko bermeak, hitzarmen kolektiboen bitartez hobegotu daitezkeenak (LE-ko 68. art.).

##### 4.4.1.- Babes neurriak

Langileen interes komunak defendatzeko jardueran, ordezkari bateratuek enpresaburuaren interes kontrajarriarekin topo egiten dute maiz. Honen ondorioz, langileen ordezkaria enpresaburuaren balizko errepresalia edo oztopatze ekintzetatik at mantentzea ezinbestekoa da.

- Babesa kaleratzearen aurka: langileen ordezkari bateratua, bere funtzioa betetzeagatik, zigor moduan, ezin da kaleratua izan. Babes honek irauten du langileak bere ordezkari funtzioa amaitu ondorengo urtean zehar.

Kaleratze diziplinarioan, ordezkari bateratuak kontraesaneko espedientea egoteko eskubidea du, bertan bere eta gainontzeko ordezkarien iritzia emango delarik. Kaleratzea bidegabea dela deklaritzen denean, kalteordaina edo berrartzearen arteko erabakia langileen ordezkariari dagokio. Kaleratze objektiboan eta kaleratze kolektiboan, langileen ordezkari direnek enpresan gelditzeko lehentasuna dute beste langile guztiekiko.

- Babesa gainontzeko zehapenen aurka: kaleratzearen kasuan gertatzen den bezala, langileak ezin du zehapenik jaso, zigor modura, bere ordezkari funtzioa betetzeagatik.

- Zehapen larri eta oso larrien kasuan, langileen ordezkariak kontraesaneko espedienterako eskubidea dauka, beste ordezkarien iritzia ezagutu ahal izateko.
- Enpresan gelditzeko lehenetsua mugikortasun geografikoko kasuetan (leku aldaketak eta desplazamenduak).
- Promozio ekonomiko edota profesionalean diskriminatua ez izatea bere ordezkariaren funtzioa betetzeagatik.

#### 4.4.2.- Sustapen neurriak

Legean zenbait neurri aurreikusten dira, ordezkari bateratuak bere funtzioa bete ahal izateko tresna lagungarri gisa.

- Adierazpen askatasuna, bere zereginaren arloko gai guztiei buruz iritzia libreki ezagutarazteko (LE-ko 68. d) art.).
- Lan-arloko gaien buruzko materiala argitaratu eta banatzeko eskubidea, enpresako jarduerak kaltetu gabe (LE-ko 68. d) art.).
- Informazioa zabaltzeko, iragarki-taula egon behar da lantokietan eta, enpresako ezaugarrien arabera, egoitza bat bertan ordezkariak elkartu eta lan egiteko (LE-ko 81. art.).
- Enpresa-batzordeetako kide eta langileen delegatuek bere funtzioa betetzeko denbora eduki dezaten, legean hilabetero ordaindutako zenbait lanordu libre aurreikusten dira (LE-ko 68. e) art.). Ordu libreen kopurua gutxienez hilabetero 15ekoa da (100 langile arteko lantokietan), eta gehienez 40 orduetako (750 baino langile gehiago dituzten lantokietan). Posible da hitzarmen kolektiboetan ordezkari desberdinei dagozkien orduak kontzentratzea erabakitzea, era honetan ordezkari bat edo batzuk lanatik erabat liberatuak gelditzen direlarik, ordainketaren kalterik gabe.

Era berean, prebentzioko delegatuei aplikagarri zaie ordaindutako lanordu libreei buruzko eraentza (LAAL-eko 37.1 art.) (ik.6.).

Ordezkaritza funtzioak betetzeko ordu libre hauen erabileraren kontrola gai delikatu da. Oso zaila da ordu libre hauetan ordezkariak egiten duena kontrolatzea. Printzipioz "ordezkaritza funtzioak" betetzea zentzu zabalean ulertu behar da, eta presumitzen da denbora libre horren erabilera egokia dela. Ordezkariak ordu horiek beste zereginetarako erabiliko balitu, enpresaburuaren botere diziplinariopean kokatuko litzateke.

## 5.- Ordezkaritza sindikala: atal sindikala eta delegatu sindikala

Ikusitako moduan, enpresa barruan bi ordezkari mota daude eta aldi berean funtzionatzen dute: ordezkari bateratua eta ordezkari sindikala. Lehenengoari dagokionez, bere existentzia legeak agintzen du, gutxienez langile kopurua duten lantoki guztietan, eta bere funtzioa enpresa edo lantokiko langile guztien interes kolektibo komunak defendatzea da. Ordezkari sindikalak, aldiz, afiliatutako langileen borondatearen arabera sortuko dira edo ez dira sortuko, eta printzipioz bere funtzioa dagokion sindikatura afiliatuak dauden langileen interesak defendatzera mugatzen da.

Sarritan bi ordezkari moten funtzioak gurutzatu egiten dira, besteak beste negoziazio kolektiboan, biak eskuduntza duten neurrian. Legeak funtzio banaketa argia egiten ez duenez, estrategia sindikalak eta tokiko dinamikak erabakiko du bi ordezkari moten arteko funtzio banaketa, askotan ordezkari bateratuak zerrenda sindikaletan hautatuak izaten direla ahaztu gabe, honen ondorioz sortzen den interakzioarekin.

Bestalde, ordezkari sindikalari buruz Askatasun Sindikaleko Lege Organikoak (ASLO) ezartzen duen erregulazioa aplikagarria da enpresa pribatuan eta baita ere funtzio publikoan. Askatasun sindikaleko titular langile eta funtzionariak direnez (Konst. 28.1 art.), ASLO osoa aplikagarri da funtzio publikoan, eta ASLO-k "langile" dioenean, kontzeptu horren barruan funtzionario publikoak sartzen dira (ASLO-ko 1.2 art.). "Enpresako ordezkari bateratuak" esaten denean (enpresa-batzordea eta langileen delegatua), funtzio publikoan bere baliokideak diren langileen juntak eta langileen delegatuak kontuan hartu behar dira.

### 5.1.- Afiliatutako langileen eskubideak

Askatasun Sindikaleko Lege Organikoak (ASLO) zenbait eskubide ematen dizkie edozein sindikatura afiliaturiko langileei, enpresa barruan jarduera sindikala aurrera eraman ahal izateko, beti ere lanorduetatik kanpo eta enpresaren jarduera arrunta kaltetu gabe (ASLO-ko 8.1 art.)

- Atal sindikalak sortzeko eskubidea, dagokion sindikatuko estatutuen arabera.
- Bilerak egiteko eskubidea, enpresaburuari aldez aurretik abisatuz.
- Kuotak jasotzeko eskubidea.
- Informazio sindikala banatzeko eskubidea.
- Sindikatuak igorritako informazioa jasotzeko eskubidea.

Ordezkaritasun nagusiko sindikatueta, sindikatuaren barruan probintzia, Autonomi Erkidego edo Estatu mailako karguren bat betetzen duten langileek honako eskubide gehigarriak dituzte (ASLO-ko 9.1 art.):

- Behar dituen ordaindu gabeko baimenak edukitzeko eskubidea, dagozkion funtzio sindikalak betetzeko. Enpresako beharizanen arabera, baimen kopurua mugatu daiteke.
- Derrigorrezko eszedentzian egoteko eskubidea, edo egoera baliokidean funtzio publikoan, lanpostua gorde eta antzinasuna konputatzeko eskubidearekin.
- Lantokietan sartzeko eskubidea, funtzio sindikalak betetzeko, aldeztatik enpresaburuari abisatuz eta ekoizpen prozesu arrunta kaltetu gabe.

Bestalde, hitzarmen kolektibo baten negoziaketan diharduen ordezkari sindikalak, behar dituen ordaindutako baimenetarako eskubidea dauka, bere enpresa hitzarmenaren aplikazio eremuan baldin badago (ASLO-ko 9.2 art.).

## 5.2.- Atal sindikala

Lantoki edo enpresa bakoitzean, edozein sindikatura afiliatutako langileek atal sindikalak sor ditzakete. Beraz, lantoki bakoitzean, afiliatuak dituen sindikatu adina atal sindikal egon daiteke, beti ere langileen borondatearen arabera, beraiei baitagokie atala sortzeko erabakia eta ez sindikatuari. Hori da legeak agintzen duena, hortik aurrera, atal sindikalak sortzeko xehetasunak sindikatu bakoitzeko estatutuak ezarriko ditu.

Atal sindikalen funtzioa, oro har, dagozkion sindikatura afiliatutakoen interesak defendatzean datza, aldi berean sindikatu osoaren estrategian lagunduz. ASLO-k gutxieneko eskubide batzuk ematen dizkie enpresan ordezkari bateratuak dituzten sindikatuen atalei, eta ordezkari nagusiko sindikatueta atal sindikalei (ASLO-ko 8.2 art.). Gutxieneko eskubide hauek hobeagotuak izan daitezke hitzarmen kolektiboen bitartez.

- Lantokian iragarki-taula egotea, atal sindikalak bere mezuak ezagutarazi ahal izateko bere afiliatuei eta, oro har, enpresako langileei.
- Negoziazio kolektiborako eskubidea (LE-ko 87.1 art.), enpresa edo azpiko eremuko hitzarmen kolektiboetan.
- 250 baino langile gehiago dituzten enpresa edo lantokietan, egoitza egoki bat erabiltzeko eskubidea, bere ordezkari funtzioa betetzeko.

## 5.3.- Delegatu sindikala

Delegatu sindikalak atal sindikaletako ordezkariak dira. Atal sindikal orotako langile afiliatuek bere ordezkaria, hots, delegatu sindikala, hauta dezakete. Baina ASLO-k eraentza juridiko berezia ezartzen du delegatu sindikalentzat soilik enpresa edo lantokiak 250 baino langile gehiago dituenengan eta, gainera, delegatu sindikala enpresan ordezkari bateratuak dituen sindikatu batekoa denean (ASLO-ko 10.1 art.). Beraz, bakarrik aipaturiko betekizunak betetzen direnean aplikatuko zaie delegatu sindikalei ASLO-ko eraentza, nahiz eta edozein atal sindikaleko kideek delegatu sindikala hautatu ahal izan, ordezkari edo bozeramaile soil gisa. ASLO-k ezarritako eraentza juridiko berezia, hitzarmen kolektiboen bitartez hobeagotu daitekeena, ondokoa da:

a) Delegatu sindikalak batetik lau arte izan daitezke, lantokiko plantilla eta dagokion sindikatuak enpresako hauteskundeetan edukitako emaitzaren arabera.

b) Delegatu sindikalek ordezkari bateratuen berme berdinak edukiko dituzte.

c) Delegatu sindikalek ondoko eskubideak dituzte:

- Enpresa-batzordeko kideei ematen zaien informazio berbera jasotzea, ordezkari bateratuek bezala ordezkari sindikalek ixiltasun profesionaleko betebeharra dutelarik.
- Enpresa-batzordeko eta segurtasun eta higienez arduratzen den organoko bileretara joatea, hitz egiteko aukera bai baina botoa emateko eskubiderik gabe (LAAL-eko 38.2 art.), (ik. 6.).
- Enpresaburuak, oro har enpresako langileei eta bereziki dagokion sindikatuko afiliatuei buruzko neurri kolektiboak hartu baino lehen, delegatu sindikalen iritzia entzuteko obligazioa dauka, batez ere neurriak zehapen edo kaleratzeak direnean. Enpresaburuak, dagokion sindikatuko afiliatuen aurka, aipaturiko neurriak delegatu sindikalen iritzia entzun gabe hartzen baditu, kaleratze edo zehapenak, hurrenez hurren, bidegabeak edo deusezak izango dira (LPLko 104, 108 eta 115. artk.).

6.- Laneko arriskuak aurrebabesteko ordezkaritzaren berezia: prebentzioko delegatuak eta segurtasun eta osasuneko batzordea



Laneko arriskuak aurrebabesteko Legeak (LAAL), bi organo berezi ezartzen ditu enpresetan, laneko arriskuak aurrebabesteko helburuarekin: prebentzioko delegatuak eta segurtasun eta osasuneko batzordea.

Prebentzioko delegatuak, legeak dioenez (LAAL-eko 35. art.), lantokiko ordezkari bateratuen artean hautatuak izango dira (langileen delegatuak eta enpresa-batzordeko kideak), aldi berean, hautesleak ordezkari bateratuak izango direlarik. Prebentzioko delegatuak ordezkari bateratuak dauden lantoki guztietan egon behar dute. Beraien funtzioa bete ahal izateko, segurtasun gaietan informazio eta kontsultarako eskubideak dituzte (ik. 4.3.2).

Bestalde, segurtasun eta osasuneko batzordea, enpresak laneko arriskuei aurre egiteko ohiko jardueran kontsultatu beharreko organoa da. Batzorde hau organo misto eta parekidea da, hots, bere partaideak prebentzioko delegatuak eta enpresaburuaren ordezkariak izango dira, kopuru berdinarekin bi aldeetan. Batzordea gutxienez 50 langile dituzten lantoki guztietan osatu behar da (LAAL-eko 38. art.).

Enpresa bateko lantokietan segurtasun eta osasuneko batzorde desberdinak daudenean, enpresaburua eta langileen arteko akordioaren bidez lantokiarteko segurtasun eta osasuneko batzordea sor daiteke. Akordioak erabakiko ditu lantokiarteko batzordearen funtzioak (LAAL-eko 35. 3 art.).

## 7.- Langileen ordezkariak funtzio publikoan: langileen delegatuak eta langileen juntak

Funtzionario publikoak, nahiz eta, funtsean, langileak izan, bere zerbitzua menpekota eta besterentzat delako (Administrazio Publikoarentzat), lan-zuzenbidetik at aurkitzen dira, erabaki politiko baten ondorioz. Beraz, bere zerbitzu prestazioaren eraientza juridikoa zuzenbide administratiboko arauetan aurkitzen da.

Funtzionarioen ordezkariak bateratua Enplegatuen Publikoaren Oinarrizko Estatutuan (EBEP), 7/2007, apirilak 12ko legean erregulatzen da. Bertan, langileen delegatua eta langileen junta arautzen dira, funtzionarioen interesen ordezkari gisa. Organo hauek, Langileen Estatutuko langileen delegatu eta enpresa-batzordeekin parekatuz gero, izaera oso antzekoa dela ikusten dugu.

Langileen delegatuak gutxienez 10 funtzionario eduki baina 50eko kopurura heltzen ez diren entitate lokaletan egongo dira, gutxienez 50 funtzionario dituzten hauteskunde unitateetan Langileen Juntak funtzionatuko duten bitartean.

Ordezkari hauen hauteskunde sistema langileen ordezkariaren oso antzekoa da (18/1994 legea eta 1846/1994 ED). Beraien funtzioak, langileen ordezkarien moduan, zenbait gai buruz informatuak eta

konsultatuak izatera eta legedia betetzearen kontrolera mugatzen dira. Azpimarratu behar da funtzionarien ordezkari bateratuek ez dutela negoziazio kolektiborako eskubiderik, desberdintasun nagusia baita (EBEP-eko 40. art.). Ordezkarien bermeei dagokionez, berriz ere antzekotasun nabaria aurkitzen dugu (EBEP-eko 41. art.).

## 8.- Biltzeko eskubidea enpresan: langileen asanblada

Biltzeko eskubidea Konstituzioan (Konst. 21. art. ) aldarrikatzen den funtsezko eskubide bat da, hiritar guztiek dutena. Baina lan-harremanetan eskubide honek kutsu berezia dauka: langileek lantokian biltzeko eskubidea dute (LE-ko 4.1 art.), enpresaburuak bere egoitzan eskubide honen egikaritzea onartu behar duelarik. Eskubide hau enpresa edo lantoki bakoitzaren eremuan egikaritu daiteke.

Beraz, langileek asanbladan biltzeko eskubidea dute, beraiei dagozkien arazoetaz informatu, eztabaidatu edota erabakiak hartzeko. Era honetan, langileen borondate kolektiboa adierazteko demokrazia zuzeneko instituzioa da asanblada, ordezkari eta bitartekaririk gabe. Bere eraentza juridikoa (deialdia, erabakiak, etab.) Langileen Estatutuan erregulatzen da (LE-ko 77-80 artk.).

Asanbladarako deialdia egiteko legitimatuak daude enpresa- batzordea, langileen delegatuak, eta zuzenean langileak, gutxienez plantillako % 33aren sustengua dutenean. Deialdia enpresaburuari jakinarazi behar zaio. Bilera langileen ordezkari bateratuek zuzenduko dute, nahiz eta deialdia beraiek ez egin, eta asanbladan gerta daitekeenaren erantzuleak dira.

Bilera lantokian egingo da, egoitza egokia baldin bada behintzat. Printzipioz, lanorduetatik kanpo izango da, enpresaburuarekin besterik adosten ez bada. Enpresaburuak bakarrik honako kasuetan uko egin diezaioke bere lantokia uzteari: legeko aurreikuspenak betetzen ez direnean (deialdiaren jakinarazpena, etab.), azken asanbladako unetik gutxienez bi hilabete ez direnean igaro (erregela hau ez da aplikatzen, asanblada aplikagarri den hitzarmen kolektiboaz informatzeko denean), aurreko asanbladan sortutako kalteak ez direnean ordaindu, eta enpresa itxiera patronaleko egoeran dagoenean.

Bileran langileei dagokien edozein arazo aztertu daiteke: negoziazio kolektiboari buruzko informazioa, ordezkari bateratuen errebokazioa, enpresako langile guztiengan eragiten ez duen negoziazio kolektiborako ordezkariak hautatzea, etab (LE-ko 87.1 art.). Asanbladan hartzen diren erabakiak plantillako langile guztientzat lotesleak izan daitezten, gehiengo absolutorearen aldeko botoa galdatzen da. Botoa sekretua izan behar da, norberaren askatasuna balizko presioetatik at gera dadin.

